2026-11-13 OSTIRALA
1.770. ZENBAKIA

LASARTE-ORIAKO ALDIZKARIA
TXINTXARRI.EUS / TOKIKOM.EUS

txintxarri

KIROLA

Aukera berdintasuna, parte hartzea eta bizikidetza sustatuko dituzte

II. Jardunaldi Inklusiboa aurrera eramango dute eragile ugarik eta udalak bihar, hilak 14, 'Aniztasunaren aztarnak' lelopean. Okendo plazan eta inguruetan ariko dira, 09:30etik 14:00etara / 10

POLITIKA

'Geroaren Memoria' eskultura eraberritu eta guzti aurrera eraman dute aurtengo Memoriaren Eguna / 2



TXINTXARRI

GIZARTEA

Grebari atxikimendu osoa erakutsi diote herritarrek. Askotariko ekintzetan parte hartu dute / 5



TXINTXARRI



Hogei urteei abesten

Bi hamarkadako ibilbidea darama Xumela koruak. Talde horretako kideek gonbidatu berezi ugarirekin ospatu dute urtemuga / 8

TXINTXARRI





GIZARTEA

Memoria Egunaren aitzakian elkartu dira

Ohi bezala, Askatasunaren parkean aurrera eraman dute aurtengo ekitaldia 'Geroaren Memoria' eskulturaren inguruan. Lan hori, eraberritu egin du Gotzon Huegun artistak, eta egindako aldaketen berri eman die bertaratu direnei. Lore eskaintza ere egin dute

Txintxarri

Urtero legez, Lasarte-Oriako herritar eta ordezkariak Memoriaren Egunaren bueltan elkartu dira berriki, motibazio politikoko indarkeriak eragindako biktima guztiei aitortza, errespetua eta elkartasuna adierazteko. Bertan izan dira udal ordezkaritza duten alderdi politiko guztietako ordezkariak, baita Lasarte-Oriako Bizikidetza Taldekoak ere. Horiekin guztiekin batera, bertaratu dira herritar ugari ere.

Hilarem 10ean, eguerdian, egin zuten ekitaldia, eta horri hasiera emateko, Agustin Valdivia alkateak hartu zuen hitza. Bertaratzea eskertu zien han bildutakoei, eta hitzartzeari ekin zion.

Azaldu zuen motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketak eta bestelako sufrimenduak jasan dituzten pertsona guztiekiko errespetua, aitortza eta elkartasuna adierazteko batu zirela. Hori esanda, azpimarratu zuen aurtengoa ez zela izan beste edozein Memoriaren Egunen modukoa; esanahi bereziaz hitz egin zuen: "Gure udalerrian bizitza instituzional eta sozialean lorratz sakona utzi duen etapa baten amaiera dakar. Dueia hamar urte baino gehiago hasi zen, Lasarte-Orian ordezkaritza genuen indar politikoek bide berri bati elkarrekin ekitea erabaki genuenean. Gure iragana begirada partekatu batetik begiratzeari ekin genion, jasandako sufrimendua aitortuz eta giza eskubideak lanerako esparru komun gisa ezarrita".

Luze eta zabal solastatu zen, baina solaserako ez ezik, eskerrak emateko ere baliatu zuen abagune hori. Lasarte-Orian gertatu ziren giza eskubideen urraketak dokumentatzeko abiatutako ikerketa gogora ekarri, eta horrek, biktimak entzuteko aukera eman diela adierazterakin batera, aitortu zuen zalantza izpirik gabe ahots horiek guztiak izan direla prozesuaren "leziorik handiena". Horiekin guztiekin agertu zen eskertuta. Era berean, hori horrela gerta zedin Lasarte-Oriako Bizikidetza Taldeak egindako "ezinbesteko ekarpena" ere nabarmendu zuen alkateak.

Minutu bateko isilunea ere egin zuten, eta horri amaiera emanda, Lurdes Iriondoren *Askatasuna zertarako a*bestia kantatu zuten denek batera. Eta aurten ere ez zuen hutsik egin lore eskaintzak.

Gotzon Huegun eskultorea ere Askatasunaren parkean aurrera eraman zuten ekitaldian izan zen. Duela hamabost urtetatik bertan ikusgai dago indarkeriaren biktimak oroitzeko artistak sortu zuen *Geroaren Memoria* eskultura, eta hain zuzen ere, hori osatzen duten marmolezko hiru argizaiolak eraberri berri ditu artistak. Hori horrela, itxura berritze horren gaineko xehetasunak emateko gonbidatu zuten. Halaxe egin zuen Huegunek. Lehenik eta behin argizaiola zer den azaldu, eta horien lekualdatzea zergatik egin duten argitu zuen. Marmolezko piezak nagusiki kolore grisekoak dira, baina badituzte bestelako koloreko elementu batzuk ere. Horiek ez dute orain arte izan duten kolorea, ordea, eta aldaketa horren gainean ere mintzatu zen.

Aurtengo Memoria Egunean, Lasarte-Oriako Bizikidetza Taldeak ere bere hausnarketa plazaratu zuen; bizikidetza auzo eredu batetik eraikitzearen aldeko aldarria egin zuten. Hala, gogorarazi zuen herri txikietan bizikidetza ez dela "denek gauza bera pentsatzea", baizik eta "desadostasunen, oroitzapen zailak daudenean eta hitzek pisua dutenean elkarri aurpegira begiratu ahal izatea; ez hori bakarrik, baita herriko espazio komunak partekatzen jarraitzea ere. Era berean, azpimarratu zuen bakea eraikitzeko auzo eredua hortik abiatzen dela, hain zuzen, ezein proiektu, ezein kausa eta ezein etorkizun politiko, ezin dela pertsonen duintasunaren gainetik jarri.

Ikuspegi horretatik, aldarrikatu zuten memoria ez dela "borroka eremua, erantzukizunerako espazioa baizik", giza eskubideetan, sufrimenduaren aitortzan eta ez errepikatzeko konpromisoan oinarritutako lur etiko partekatua berreraikitzeko.

Artikulu osoa eta argazki galeria *www.txintxarri.eus* atarian daude ikusgai.



Belazean kokatu dute 'Geroaren Memoria' eskultura eraberritua. TXINTXARRI




Lore eskaintza egin zute; batzuek monolitoetan utzi zuten arrosa zuria. TXINTXARRI



Minutu bateko isilunea egin zuten, eta Lurdes Iriondoren 'Askatasuna zertarako' abestia kantatu, denek elkarrekin. TXINTXARRI



Alkateak, Huegunek eta bizikidetza taldekoek hitz egin zuten agerraldian. TXINTXARRI



Ezker-eskuin, Elisa Peredo eta Silvia Carrizo, Antonio Mercero aretora bertaratutakoei azalpenak ematen. TXINTXARRI

GIZARTEA

"Beste pertsona batzuk zaintzen dituzten pertsonak gara, ez objektuak"

Azaroaren 25eko egitarauaren barruan, zaintza langileen egoeraz hitz egin dute

Iñigo Gonzalez Sarobe

Aurrera darrai Lasarte-Oriako Udalak zenbait eragilerekin lankidetzan antolatutako egitarauak, Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunaren (hilak 25) bueltakoak. Horren barruan, *Resistencia y organización de las trabajadoras del hogar y los cuidados* hitzaldia eman zuten Malen Etxea zentroko kide Silvia Carrizok eta Maitelan Zaintza Kooperatibako ordezkari Elisa Peredok, Antonio Mercero aretoan.

Lan horiek aurrera eramaten dituzten pertsona gehienak emakume migratzaileak direla nabarmendu zuten. "baldintza txarretan" aritzen direnak. "Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata jasotzen dute, eta hori zortea dutenek", adierazi zuen Carrizok. Horri lotuta, azpimarratu zuen gizartea oso ohituta dagoela zaintza lanak "oso merke" jasotzera: "Urteko 365 egunetan lan egiten dute; arta bikaina ematen dute miseriazko soldaten truke".

Norabide horretan, mezu argiak eta gardenak bota zituzten bi hizlariek. Gogoeta honen bidez, esaterako: "Beste pertsona batzuk zaintzen dituzten pertsonak gara, ez objektuak".

Langileak babesteko

Egoera hori izanda, zaintza eta etxeko lanetan aritzen diren emakume migratzaileei babesa ematea, haien eskubideak defendatzea eta lan baldintza duinak bermatzea dira Malen Etxearen zein Maitelan Zaintza Kooperatibaren helburuak. Aurreneko eragileak hogei urte baino gehiagoko ibilbidea du; bigarrena, berriz, 2020ko otsailean eratu zuten.

Hurrengoak

Hilak 18, asteazkena

- **18:30ean, Antonio Mercero aretoan,** Itxaso Martin Zapiain idazlearekin aztertuko dute Punto Bobo lana irakurle txokokoek.

Hilak 19, osteguna

- **19:00etan, kultur etxean,** Biyak Bat koruaren kontzertua.

Bataren zein bestearen ezaugarriez, lan ildoez eta osaketaz jardun ziren Carrizo eta Peredo. Azalpenen tartea bukatu ostean, bertaratu zirenen galderak erantzun zituzten.

GIZARTEA

INDAR egitasmo "ireki eta irisgarrian" parte hartzeko deia egin dute

Bihar, hilak 14, Yoga Inklusiboa tailerra eta antzerki amateur ekimena martxan jarriko dituzte. Doakoak dira biak ala biak

Txintxarri

Mari Mar Gomez gizarte integratzaile eta coach-ak sortutako proiektua da INDAR. "Dibertsitatea, inklusioa eta irisgarritasuna" dira egunerokoan jorratzen dituzten balio nabarmenenak, TXINTXARRI-ri azaldu dionez. "Ezaugarri anitzak" dituzten emakumeei zuzendutako egitasmoa da eta urtean zehar aurrera eramaten dituzten jardueratan parte hartzeko deia egin die horiei guztiei.

Gaur-gaurkoz 50 emakume baino gehiagoko komunitatea ehundu dute eta WhatsApp talde bat dute partaide guztien intereseko informazioa partekatzeko. Horrez gain, Conecta con la parte de ti que necesitas tailerra egiten dute ostiraletan: 16:00etatik 18:00etara elkartzen dira San Pedro Parrokia alboko geletako batean. "Elkar entzun eta batera hazteko espazio segurua da hori", azaldu du.

Yoga Inklusiboa tailerra

Hitzaldiak, topaketak, orientazio laborala... Ugariak dira INDAREn ematen dituzten zerbitzuak. Gomezek zehaztu duenez egiten dituzte baita ere tailerrak. Ildo horretatik, bihar, hilak 14, Yoga Inklusiboa ikastaroari ekingo diote. 10:00etatik aurrera egingo dituzte saioak, larunbatero.

Aurrera eramaten dituzten ekimen guztiak doakoak direla gogorarazi du INDAREn sortzaileak: "Emakumeak gugana etorri eta egiten ditugun jardueretan parte hartzea nahi dugu; dirua ez da horretarako oztopo izango". Horrekin batera, nabarmendu du egitasmo "irekia eta irisgarria" dela. "Bazkide izateak ahotsa ematen digu; gizartean presenteago gaude".

GIZARTEA

Emakumeen Etxeko araudirako ekarpenak jasotzeko gogoz daude

Emakumeen Etxearen antolaketa eta funtzionamendua arautzeko prozesua abiatu du Lasarte-Oriako Udalak eta jakinarazi du norbanakoek zein elkarteek abenduaren 1era arteko epea izango dutela horren gaineko proposamenak eta iradokizunak helarazteko. Parte hartu nahi dutenek udalaren erregistro orokorra erabil dezakete edo bestela *berdintasuna@lasarte-oria.eus* helbide elektronikoa idatzi behar dute. Helarazi nahi dituzten ekarpenak aurkezterakoan euren buruak edo erakundea zein den zehaztu beharko dute.

Herritarren eta eragileen parte hartzearekin udalak osatu nahi duen araudiak zehaztuko ditu gunearen antolaketa, funtzionamendua, sarbidea eta erabilera, baita bertan garatuko dituzten jarduerak, programak eta zerbitzuak ere.

Ttakun Kultur Elkartea

Zozketa!

Eman izena hilaren 30a baino lehen.

harpidetza@ttakun.eus helbidean,
943-37 14 48
zenbakira deituta
eta 646 82 44 66 (whatsapp)

Bazkide zara?



Elkartearen 35. urteurrena ospatzeko
ERRIGORAren eskutik
OTAR BAT zozkatuko dugu

Katxiporretaren eskutik PIRRITX,
PORROTX ETA MARIMOTOTSEN
"MUSU BETE URTE" 2 diska-liburu



ESKUTITZA

Udalak ez du Zabaleta Auzolan entzun nahi

ZABALETA AUZOLAN ELKARTEA
ERAGILEA



Zabaleta auzoko Basotxo berdegunea. ZABALETA AUZOLAN

Zabaletako Auzo Elkartearen izenean, gure kezka eta desadostasun sakona adierazi nahi dugu udalak azkenaldian gure auzoarekiko eta, bereziki, gure elkartearekiko izan duen jarreraren aurrean. Urte luzez lankidetzan eta elkarrekiko errespetuan oinarritutako harremana izan dugu erakundearekin, baina azken urteetan harreman hori nabarmen okertu da. Hirigintza eta parte hartze arloetatik zuzeneko elkarrizketa saihestu da, eta auzoko beharrak elkarrekin aztertzeko geneukan bidea itxi zaigu.

"Ez dugu konfrontaziorik bilatzen, ezta estalkiaren proiektua oztopatu nahi ere"

Hori guztia argi geratu da Zabaletarako hain beharrezkoa den estalkiaren proiektuan. Urteak daramatzagu azpiegitura hau eskatzen, frontoia baita gaur egun auzoan daukagun babesleku bakarra eta kirol jarduerek okupatzen baitute ia beti. Horregatik, 2021eko eta 2022ko aurrekontu parte hartzaileetan proposamena aurkeztu genuen. Bi deialdietan bozkatuena izan zen arren, udalak behin eta berriz baztertu zuen, arrazoi teknikoak argudiatuta edo hurrengo urteetara atzeratuta.

Hitz emandako datak bete ez ondoren, iazko apirilean udalak informazio bilera bat antolatu zuen frontoian, baldintza oso desegokietan: pilota partiden zarataren erdian hitz egin behar izan genuen, guk erabiltzen dugun udal lokala eskura egon arren. Geroago, kokapena erabakitzeko bozketa elektroniko bat egin zen, eta sei hilabete beranduago jakin genuen berdinketa eman zela (128 boto frontoiaren atzeko eremuarentzat eta 128 parkearentzat). Emaitza deigarri horren aurrean, urtarrilean eta apirilean informazioa eta datuak eskatu genituen udalaren erregistroaren bidez, baina ez dugu gaur arte erantzun bakar bat ere jaso.

Iraingarria iruditzen zaigu urrian oposizioaren bidez jakin izana udalak kokapena jada erabakita zuela eta lizitazioa prestatzen ari zela, guri ezertxo ere jakinarazi gabe eta erabakia babesten duen txosten teknikorik aurkeztu gabe. Bereziki larria da erregistro bidez bidalitako eskaerei erantzunik ez ematea; errespetu falta argia da herritarren alde lan egiten duen elkarte batekiko. Deigarria da, era berean, jai, kultura edo zerbitzu arloetako arduradunekin harreman ona eta profesionala mantentzen dugun bitartean, hirigintza eta parte hartze sailek gure ekarpenak erabat alboratzea eta solaskide gisa ez aitortzea.

Gure ustez, herri parte hartzea ez da aukera itxiak bozkatzera mugatzen den itxurakeria; partehartzea informazioa gardentasunez partekatzea, iritziak entzutea eta erabakiak herritarrekin kontrastatzea da. Zabaletan urteak daramatzagu auzo komunitatea gure kabuz eta borondatez eraikitzen, eta ez dugu onartuko gure etorkizunari eragiten dioten proiektuetan bazterrean uztea.

"Bilera bat egiteko eskaera luzatzen diogu alkateari, egoera argitzeko eta harremanak bideratzeko"

Ez dugu gatazkarik bilatzen, ezta proiektua oztopatu nahi ere. Auzoak merezi duen estalkirik egokiena eraikitzea nahi dugu, elkarrizketaren eta zintzotasunaren bidez. Horregatik, Lasarte-Oriako alkateari bilera formal bat eskatzen diogu lehenbailehen, egoera hau bideratu eta elkarrekin lan egiteko bideari berriro ekiteko.



Enpresen jasangarritasuna da mankomunitatearen lan ildoetako bat. BETERRI-BURUNTZA

EKONOMIA

Eskualdeko negozioek lehiakortasuna irabazteko proiektuak abiatu ditu

Karbono aztarnan eta ESG irizpideetan jarri du fokua Beterri-Buruntza Mankomunitateak

Txintxarri

Ekonomiaren mundu globalizatu eta lehiakor honetan, gero eta gehiago dira enpresa eta negozioek euren eguneroko jardunean topatzen dituzten exijentzia eta betebeharrak, bezeroen nahi eta erantzukizun sozialetatik eratorritakoak batzuk, derrigor betebeharreko legediek inposatutakoak besteak. Bide "malkartsu" horietan topa ditzaketen oztopoei aurrea hartu eta gainditzen laguntzeko, Beterri-Buruntza Mankomunitateak zenbait tresna jarri ditu eskualdeko enpresen eskura, hala nola karbono aztarnaren kalkulua eta ESG irizpideak; azken horrek ingurumena, gizartea eta gobernantza barnebiltzen ditu.

Oraindik erabat garatu gabe dagoen arren, karbono aztarnaren kalkulua eta erregistroa arautzen duen legedia "nabarmen" zorroztu da azken urteotan, mankomunitateko kideek azpimarratu dutenez. 2050erako "neutraltasun klimatikoa" deritzona lortzeko bidean, helburu nagusia enpresek eta administrazio publikoek euren berotegi efektuko gasen isuriak neurtzea, murriztea eta konpentsatzea da. Norabide horretan, neurri eta betebehar gero eta zorrotzagoak aurreikusten dituzte agintariek eta erakundeek. Etor daitekeenaren aurrean prest egoteko, Beterri-Buruntza Mankomunitateak euren karbono azterketaren kalkulua egiteko modua ematen die lurraldeko enpresei.

Programa horrek enpresaren jarduerak sortzen dituen berotegi efektuko gasen emisioak ezagutzeko eta murrizketa neurriak identifikatzeko aukera ematen du, hobekuntza aukerak identifikatu eta, aldi berean, ingurumenarekiko konpromisoa indartu eta lehiakortasuna hobetzen du gaiaren gainean gero kontzienteago diren bezeroen aurrean.

ESG, irizpide "erabakigarria"

Ildo horretatik, ESG siglak igaro dira kontzeptu ezezagun bat izatetik bezeroentzat, langileentzat eta inbertitzaileentzat irizpide erabakigarria izatera. Ez da "moda huts bat", baizik eta enpresak baloratzeko modua eraldatzen ari diren kontzeptuak. Gaur egungo testuinguruan (klima aldaketa, gizarte desberdintasunen hazkundea eta gardentasun handiagoaren eskaria) gero eta garrantzitsuagoa da enpresek modu arduratsu, lehiakor eta jasangarrian jardutea. Horregatik, Beterri-Buruntza Mankomunitatearen ESG diagnostiko eta ekintza planak horretarako laguntza emango die eskualdeko negozioei.


"Neutraltasun klimatikoa" deritzona lortu behar dute enpresek 2050. urterako



Mugimendu Sozialistako kideak errepidean eserita. MUGIMENDU SOZIALISTA



Donostia etorbideko errepidea oztopatu zuen Ernaik goizeko piketean. ERNAI



Herritarrak kale bira egiten. ERNAI

GIZARTEA

Egun osoz aldarrikatu dute etxebizitza eskubidea dela; herrian eta bertatik kanpo

Euskal gehiengo sindikalak deitutako hilaren 11ko greba orokorrarekin bat egin dute lasarteoriatarrek. Askotariko ekintzetan parte hartu dute goizetik, eta usurbildarrekin batera aurrera eramandako manifestazioarekin amaitu dute



Talde argazkia atera zuten herritarrek Donostiako manifestaziora joan aurretik. ERNAI

Txintxarri

Goizean goizetik erakutsi zuten lasarteoriatarrek etxebizitza eskubidearen alde eta espekulazioaren aurka deitutako greba orokorrarekiko atxikimendua. Piketeekin ekin zioten egunari, eta kale bira zaratatsua egin zuten gero. Ostean, Donostiako manifestaziora joan ziren, eta handik, berriz ere herrira itzuli eta *Etxebizitza eskubidea bermatzeko, espekulazioari ez!* lelopean manifestazioa aurrera eraman zuten. 18:00etarako deitua zuten LAB sindikatuak, aSUnak taldeak, Lasarte-Oriako Ernaik eta Mugimendu Sozialistak manifestazioa herrian. Usurbildarrek ere Lasarte-Oriako mobilizazio horrekin bat egin zuten. Oso jendetsua izan zen.


Okendo plazatik abiatuta, erdigunea zeharkatu eta berriz ere hasiera leku berera iritsi zen manifestazioa: Okendo plazara. Bide horretan guztian etengabe egin zituzten aldarrikapenak manifestariek; etxebizitza eskubidea dela ozen oihukatu zuten, eta behin eta berriro eskatu, espekulazioarekin amaitzeko.

Aldarrikapen afixa nagusiaren inguruan batu dira bertaratu direnak parte ahrtzaile guztiak, Okendon, eta etxeratu aurretik, adi entzun dituzte lau eragiletako ordezkarien hitzak: Lasarte-Oriako Ernaik, aSUnak taldeak, Mugimendu Sozialistak eta Usurbilgo Txirikorda belaunaldi arteko etxebizizta komunitarietako ordezkari banak irakurri duten adierazpena.

Kronika osoa, argazki galeria eta bideo sorta *www.txintxarri.eus* web atarian kontsulta daitezke.



Herritar ugarik parte hartu zuen Donostiako manifestazioan ere. TXINTXARRI



Okendotik abiatuta, herria zeharrkatu eta berriz ere hasierako lekura heldu zen manifestazioa. Oso jendetsua izan zen. TXINTXARRI



Herriko manifestazioan hitza hartu zuten lau eragiletako ordezkariak. TXINTXARRI

KULTURA

Talentu handiko harrobia dugu herrian, bikoizketa tailerrean erakutsi dutenez

Igone Gonzalez bikoizketa aktore herritarrak bere ogibidea erakutsi die gazteei

Lierni Apaolaza Urdanpileta

Harrera beroa izan zuen hilaren 7ko bikoizketa tailerrak. Izan ere, hasiera batean, asmoa ordubeteko saio bakarra egitekoa zen. Alabaina, aurreikusitako baino lasarteoriatar gehiago animatu zirenez, bi egin behar izan zituzten azkenean. 10-16 urte bitarteko 26 lagunek parte hartu zuten. Ikastaro hori Antonio Mercero gunean aurrera eraman zuten Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolakoek, Igone Gonzalez bikoizketa aktore lasarteoriarrarekin batera.

Gonzalez itzultzaile profesionala da. Duela lau urte hasi zen arlo horretan, eta geroztik hamaika proiektutan aritu da. Besteak beste, ahotsa jarri dio Heidiri *Heidi, katamotzaren erreskatea* pelikulan. Egun, *Dragoi Bola Super* telesailean diharduu lanean.

Ordubeteko ekitaldi horretan, *Inside Out 2* pelikulako eszena bat bikoiztu zuten. Horretarako, dinamizatzaileak erabaki zituen bakoitzaren rolak. Txandaka erabili zuten mikrofonoa parte hartzaileek, elkarrizketaren jarioaren arabera. Zenbait gomendio emanda, fin aritu ziren gaztetxoak. Bien bitartean, ahotsak grabatu eta muntatu zituen Gonzalezek, saioaren amaieran, landutako eszena artista txikiei erakusteko. Gogotik gozatu zuten haurrek eta ugarik errepikatzeko gogoa erakutsi zuten.



Igone Gonzalez, bikoizle gaztetxoei jarraibideak ematen. TXINTXARRI



Partaideek primeran pasa zuten eta errepikatzeko gogoa erakutsi zuten. TXINTXARRI

Programa zabala

Abenduaren 19an, larunbatarekin, Bilaka Kolektiboak bi jarduera egingo ditu. Alde batetik,10:00etatik 12:00etara, dantza tailerra eskainiko dute, Manuel Lekuona Kultur Etxean. Bertan aritzeko, aurrez izena ematea ezinbestekoa da, baita euskal dantzen gaineko ezagutza izatea ere. Era berean, 18 urtetik gorako helduei zuzenduta dagoela ohartarazi dute antolatzaileek. Data gerturatu hala, inskribatzeko informazioa luzatuko du Kukukak. Bestetik, arratsaldean emanaldia egingo dute. 17:00etan izango da, Okendo plazan eta herri guztiarentzat irekia izango da.

Programatu duten hurrengo ekimena urtarrilaren 23an izango da: Barreterapia tailerra. Manex Beristainek gidatuko du saioa, eta bertan parte hartzeko izena eman beharko dute interesdunek. Hori nola egin aurrerago zehaztuko dute antolatzaileek. Aurreratu dute Manuel Lekuona Kultur Etxean elkartuko direla eta 11:00etan hasiko dela ikastaroa.

Ospakizun berezia ekainaren 7ko astean itxiko dute, antzerki eta dantza emanaldi ugarirekin.

KULTURA

Gitarraren doinuak eta ahotsa uztartu ditu Nokono artistak



Nokono, kontzertu betean. TXINTXARRI

Kontzertua eman zuen Nokono artistak hilaren 7an, Jalgi kafe antzokian. Gitarraz eta ahotsaz baliatuta ondu zuen ordubete inguruko emankizuna, arratsaldeko zazpietan. Ordu horren bueltan zerbait hartzera joandako herritarren egonaldia girotu zuen era horretara.

Estiloa zeinahi izanik ere, musikari eta bestelako artista ugariren topalekua da Geltoki kalean dagoen kafe antzokia 1998. urtetik. Kontzertuak ez ezik, hitzaldiak edota argazki erakusketak antolatzen dituzte urtean zehar.

GIZARTEA

Berriro elkartu izana ospatu dute 1969an jaiotako herritarrek

Elkartu eta belaunaldi berekoen berri izateko egun aproposak dira kintoen bazkariak. Horixe egin zuten 1969an jaiotakoek hilaren 7an. Eguerdian jarri zuten zerbait hartzeko hitzordua eta kontu kontari aritu ostean Abend jatetxean bazkaldu zuten. Lau plater hauetatik bi aukeratu zituzten, hasteko: txangurro krepa, arrain pastela, hestebete iberikoak eta piper beteak. Jarraitzeko, labean erretako zapoa edo entrekota plantxan. Ondoren, postrea eta kafea hartu zituzten.



ANGEL CARRILLO

KULTURA

Kultura trukeari eta folklore herrikoiari eskainitako ikuskizuna egingo dute

Erketz, Trebeska eta El Centenar Grup de Danses dantza taldeak ariko dira

Txintxarri

Dantza topaketa aurrera eramango du Erketz Danta Taldeak bihar, hilak 14, larunbatarekin, Manuel Lekuona Kultur Etxean. Hala iragarri du udaleko Kultura saileko zinegotzi Ainara Elicecheak eta aipatu eragile horretako kide Jesus Mari Ormazabalek eta Geno Salsamendik. Egun horretarako prestatu dutena aurkezteko agerraldia egin dute kultur etxe atarian.

Elicecheak hartu du hitza eta hori baliatu du Erketzek aurrera eramaten duen jardunari azpimarra egin eta hori balioan jartzeko: "Lasarte-Oria kultur aberastasun handiko herria da. Hori ez da antolatzen diren jardueren aniztasunean soilik islatzen; batez ere, gure tradizioak bizirik mantentzeko, ekimen berriak bultzatzeko eta kulturak gure herriko eguneroko bizitzaren parte izaten jarrai dezan egunero lanean ari diren pertsona eta elkarteetan islatzen da". Era berean, mintzatu da gisa horretako topaketak babestearen garrantziaz ere: "Lasarte-Oriako kultur aberastasuna kultur truke horien, elkarteen arteko lankidetzaren eta herritarren parte hartzearen bidez eraikitzen da".



Erketz dantza taldeko nahiz udaleko ordezkariak, egitaraua aurkezten. TXINTXARRI

Hiru dantza talde

Ormazabalek hartu du hitza ostean, eta topaketan parte hartuko duten bi talde gonbidatuez aritzeaz gain, egitasmoaren xehetasunak eman ditu. Donostiako Trebeska taldea aurkeztu du lehenik. 1976. urtean sortu zen Egia auzoan eta euskal dantza herrikoien berreskurapenean eta zantzu tradizionalen ikerketan oinarrituta egin du bere ibilbidea. Alacanteko Villajoyosa hirian errotutako eta bertako ohiturak mantentzen dituen El Centenar Grup de Danses izan du ahotan gero.

Hori horrela, esan du emanaldian zehar Trebeskak eta Erketz EDTk Euskal Herriko kulturaren aberastasuna oholtzaratu eta erakutsiko dutela, noski, dantza, doinu eta jantzi tradizionalen bitartez. El Centenarrek, berriz, bere lurraldeko koreografia tradizionalen erakustaldia egingo duela azaldu du. Hala, horien "ezinbesteko elementua" den errondaila zer den azaldu du: "Alacant-eko folklore pieza nagusiei musika jartzen dien hari pultsatuko musika talde tradizionala da". Halaber, argitu du talde hori osatzen duten instrumentuak zeintzuk diren: gitarrak eta gitarroiak, bandurriak eta lauteak eta perkusio txikiko instrumentuak, hala nola kriskitinak, panderetak edo triangeluak. Horiek zein pieza joko dituzten ere aurreratu du: jotak, boleroak eta fandangoak.

Gauzak horrela, deialdia zein ordutan hasiko den gogorarazi dute. 18:00etan ekingo diote kalejirari. Kultur etxetik abiatuta, Pablo Mutiozabal kalean barrena iritsiko dira Kale Nagusira. Bertan lehen geldialdia egin, eta ostean, handik Okendo plazara joango dira. Bertatik kultur etxera joango dira eta 19:00etan hasiko da emanaldi nagusia. Sarrera doakoa da baina bertaratu nahi dutenek aurrez hartu beharko dituzte gonpidapenak kultur etxeko leihatilan.



Ane Labaka, Gernika-Lumoko saioan kantatzen. BERTSOZALE ELKARTEA

KULTURA

Finalaurrekoetako bigarren itzulian kantatuko du Ane Labakak

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketan parte hartzen ari da herritarra. Uneotan bederatzigarrena da, 703,5 punturekin

Txintxarri

Aitor Mendiluze, Aner Peritz, Joanes Illarregi, Aitor Bizkarra eta Agin Labururekin batera aritu zen Ane Labaka lasarteoriatarra hilaren 7an, Gernika-Lumon. Lan txukuna egin zuen, ariketa guztiak amaitutakoan 703,5 puntu bilduta. Finalaurrekoetako lehen itzuliko saio baten faltan, larunbat honetakoa Miarritzen, bederatzigarrena da sailkapen orokorrean eta bermatu du bigarren bueltan aritzeko tokia, hemezortzi bertsolari sailkatuko direlako eta sei besterik geratzen direlako kantatzeke. 1.600 bertsozale bertaratu ziren joan den larunbatean Gernika-Lumon jokatutako saiora. Mendiluze andoaindarra gailendu zen, 713 punturekin.

Esan bezala, finalaurrekoetako lehen itzulia Miarritzen itxiko dute bihar, hilak 14. Andoni Rekondo, Julio Soto, Maddalen Arzallus, Maddi Ane Txoperena, Sustrai Colina eta Oier Etxeberriak kantatuko dute. Horren ostean jakingo dute zein hemezortzi bertsolari sailkatuko diren bigarren itzulira.

Hilaren 21ean, 28an eta abenduaren 5ean jokatuko dituzte bigarren itzuliko kanporaketak. Donostian, Gasteizen eta Bilbon izango dira, hurrenez hurren. Final handia, berriz, abenduaren 20an aurrera eramango dute Iruñean. Azken edizioko txapelduna, Maialen Lujanbio, saio erabakigarrira sailkatuko diren beste zazpi bertsolarirekin ariko da. Bertsozaleen zita kuttunenetako bat izanik, eta txapelketa lau urtean behin egiten dutela kontuan izanda, finalerako sarrerak aspaldi agortu ziren.

KULTURA


Tratu txarrak pairatu osteko istorio alaia kontatu dute: 'Bi baso bat ur'

Txintxarri

Metrokoadroka Laborategia konpainiako aktoreek *Bi baso bat ur* antzezlanaren emanaldia egin zuten Manuel Lekuona Kultur Etxean, hilaren 7an. Intza Alkain lasarteoriatarra izan zen oholtzan aritutako antzezleetako bat.

Tratu txarrak pairatu ondorengo egoera lantzen du obra horrek. Sakontasunez eta errespetuz ondutako solasaldiak helburu du minaren osteko umorearen jabe egitea sufrimendua gainditzeko ezinbesteko tresna dela adieraztea. Horretarako, dantzalekuaren erdian dauden lau pertsonen istorioa kontatzen du. DJak inguruko jendea dantzan jartzen duen bitartean, geldi daude lau horiek; bakoitzak baso bat ur du eskuan.

Edurne Azkaratek eta Oier Guillanek zuzendu dute antzezlana, eta Miren Azkarateregin batera idatzi du Guillanek. Alkainekin batera beste hiru aktore oholtzaratu ziren: Javier Barandiaran, Iraia Elias eta Marina Suarez. Kultur etxeko emanaldiaren hurrengo egunean sare sozialetan argitalpen bat egin zuen antzezle lasarteoriatarrak, bezperan bertaratutako ikus-entzule guztiei eskerrak emateko. "Etxean" aritzea berarentzako ariketa kuttuna dela berretsi zuen.



'Bi baso bat ur' antzezlaneko eszenetako bat. TXINTXARRI

KULTURA

Kantuz eta konpainia ederrean ospatu dute hogei urteko ibilbidea

Manuel Lekuona Kultur Etxeko oholtza musikaren eta emozioen topaleku bilakatu dute Xumela koruko kideek, gonbidatu berezi ugarirekin batera. 2006an sortutako taldeak indar betean jarraitzen du



Ramon Agirre eta Txapas. TXINTXARRI



Serigne Lo (ezkerrean, eserita) musikariaren doinuak jarraitzen. TXINTXARRI



Xumelaren ibilbidearen erakusgarri den talde argazki jendetsua atera zuten kultur etxeko oholtza gainean. TXINTXARRI

Lierni Apaolaza Urdanpileta

Hilaren 8ko hitzordu bereziari ekin aurretik, eszenatoki gainean jarrita ziren Xumela Abesbatzako lagunak. Bi mailako harmailuan kokatuta egin zieten harrera euren senideei eta lagunei. Alboan izan zituzten Zarauzko Montetxio eta Hondarribiko Olagarro koruak; ezkerrean eta eskuinean, hurrenez hurren. Joxe Mari Agirretxe eta Aiora Zulaika aritu ziren dinamizatzaile lanetan. Serigne Lo musikari senegaldarrak erritmoa ipini zion ospakizunari. Baten bat kenduta, interpretaturiko abesti guztiak Josu Txapartegi *Txapas*-ek ondutakoak izan ziren.

Zorionak zuri abestia denek batera kantatu zioten Xumelari, eta horrela eman zioten hasiera ospakizunari. Ondoren, Aiora Zulaikak eta Anoetako haurrek hartu zuten mikrofonoa. Askotariko instrumentuak edota ahotsak uztartuta, ederki aritu ziren Tolosaldeako gaztetxoak.

Jarraian, aparteko gonbidatuak izan zituzten bidelagun. Hasteko, Ramon Agirre aktoreak abesti bat kantatu zuen Txapasekin batera. Segidan, abesbatza honen kantu kuttunenetakoarekin gozatzera animatu zen Agirre; *Epo itai tai ye* mitikoarekin. Haren ondotik, Olaia Inziarte abeslari nafarrak hartu zuen mikrofonoa. *Kontatuko banizu* eta bere amatxi Maria Jesusi dedikatutako *MJ* abestu zituen.

Oronozkoaren ondoren, abesbatza gonbidatuek hartu zuten hitza, eta horien atzetik, Jon Maia Soria bertsolariak. Benito Lertxundiren *Itsasoari begira* interpretatu zuen koruekin batera, baita Ken Zazpi-ri Maiak berak idatzitako *Itsasoa gara* ere. Pare bat bertso botatzera ere ausartu zen. Hizpide izan zituen ospakizuna, gonbidatutako koruak, eta nola ez, Xumela bera.

Prestutasunari eta ibilbideari aitortza

Denek batera abestuz eta algaran amaitu zuten ordubete eta erdi iraun zuen ospakizuna. Bizitako momentu ederra gogoratzeko talde argazkia atera, eta Usurbilgo Atxega jatetxera joan zirenjaki eta konpainia ederraz disfrutatzera.

Xumela koruaren sorreran izandako garrantziagatik, baita hogei urteotan egindako lanagatik, aitortza egin zioten Txapasi. Horretarako, bere emazte Mariaje oholtzaratu zen. Koruko partaide Felix Telleriak agurra dantzatu zien Aiora Zulaikak txistua jo bitartean. Gainera, kamelia landare bat oparitu zioten bikoteari, "loreak usaintzean, Xumelako lagun bakoitzarekin gogoratzeko".

Hogei urteotan egindako lana aitortu diote Josu Txapartegi 'Txapas' zuzendariari



Felix Telleriak agurra dantzatu zien Txapasi eta Mariajeri. TXINTXARRI



Olaia Inziarte, pasioz abesten. TXINTXARRI



Jon Maia, bertsotan. TXINTXARRI



Usurbilgo Atxega jauregian bazkaldu zuten. XUMELA KORUA

HEZKUNTZA


Munduari begira jarri dira Oriarte Larrekoetxeko ikasleak

Munduko Gatazkak irakasgaiko taldea - Txintxarri

Hankaz gora dago mundua eta edonon gertatzen ari dena ulertu ahal izateko beharrezkoa da ongi informatzea, ikuspuntu kritikoa garatzeko baliabideak eskuratzea eta norberaren iritzia argi azaltzeko gai izatea. Hori guztia (eta gehiago) lantzen ari dira Oriarte Larrekoetxe institutuan ikasten duten 1. Batxilergoko hamalau ikasle, Nora Muñoa Guenaga irakaslearekin batera, Munduko Gatazkak izeneko irakasgaian.

Gaur egun pil-pilean dauden gatazka ugari landu dituzte eta horiek testuinguruan jartzeko atzera ere begiratu dute asteartetan eta ostiraletan egiten dituzten saioetan. Teoria barneratuta, praktikara eraman dute ikasitakoa eta hamasei iritzi artikulu prestatu dituzte, zazpi astetan TXINTXARRI aldizkariaren paperezko orrietan zein txintxarri.eus webgunean argitaratuko ditugunak. Ikasturte hasieran gurekin jarri ziren harremanetan lankidetza egitasmo bati ekitea posible zen ala ez aztertzeko, eta, datozen asteetan ikusiko (eta irakurriko) duzuenez, pozarren ekin diogu proiektuari guztion artean.

Bigarren argitalpen honetara ekarri ditugu Gabriel Sozak eta Hodei Herrerok prestatutako iritzi artikuluak. Biek ala biek Palestinako "arazo larria" landu dute eta bertan gertatzen ari denari buruzko ikuspegia eman digute.



Munduaren egoera, grafikoki. ORIARTE

IRITZI ARTIKULUA

Palestina, gatazka bat baino gehiago



GABRIEL SOZA
ORIARTEKO 1. BATXILERGOKO IKASLEA

Gaur egun, Palestinan gertatzen ari den gatazka munduko arazo larrienetariko bat da. Nire ustez, gatazka hau ulertzeko, ez dugu gaurko egunera begiratu behar, baizik eta historiara jo behar dugu.

Lehenik eta behin, Gerra Hotza eta deskolonizazioa ezagutu behar ditugu. II. Mundu Gerra ostean, mundua bi zatitan banatu zen: bando komunista (Sobietar Batasuna buru) eta bando kapitalista (Amerikako Estatu Batuak buru). Aldi berean, Afrikan eta Asian dauden herrialde askok, independentzia lortu zuten, deskolonizazio prozesuari esker. Kolonien menpekotasunetik atera arren, herrialde ahulak bihurtu ziren eta ekonomikoki potentzia nagusien menpe geratu ziren. Gertakaera horri neokolonialismoa deitzen zaio.

Bestalde, gaur egungo mundua globalizazioak baldintzatzen du. Gainera, teknologia berriei esker, informazioa azkar zabaldu dezakegu. Baina, aldi berean fake news-ak azkar zabaldu daitezke ere, horregatik, nire ustez, ikusten dugun informazioa iturri fidagarrietan egiaztatu behar dugu.

> **"Bakea lortzeko, eskubideak jarri behar dira interes ekonomiko eta politikoen gainetik"**

Gainera, geopolitika funtsezko kontzeptua da. Geopolitikak lurraldeen arteko harremanak, balibide naturalak, kokapen geografikoak eta botere politikoen arteko harremanak aztertzen ditu. Herrialdeek ez dituzte erabakiak ideologiarengatik hartzen soilik, askotan, interes estrategikoa eta ekonomikoak ere kontuan hartzen dituzte. Palestinako gatazka horren adibidea da, Ekialde Hurbilaren kokapena estrategikoa da eta AEB Amerikako Estatu Batuek Israeli laguntza eman izan dio urteetan zehar. Horregatik, gatazka hau ez da bi herrien arteko arazoa soilik, nazioarteko potentzien interesekin ere lotuta dago.

Gatazkaren jatorria XIX.mendearen amaieran sortutako sionismoarekin hasi zen, hau da, judutarrei estatu bat lortzeko nahiarekin. 1947an Britaina Handiak Palestina bi zatitan banatzea proposatu zuen. Ondoren, 1948an Israelgo estatua sortu zen, II. Mundu Gerraren ostean, ondorioz, 700.000 palestinar inguruk beraien etxea utzi zuten edo kanporatuak izan ziren. Gertakaera horri Nakba deritzo. Urte batzuk geroago, 1967an, Israelek Gaza eta Zisjordania okupatu zituen.

Nire iritziz, gatazkaren alderdi larrienetako bat palestinarren esubideen urraketa eta gatazkak belaunaldiz belaunaldi eragindako sufrimenduak dira. Palestinarrek askatasunez eta segurtasunez bizitzeko eskubidea dute, eta israeldarrek ezin dizkiote palestinarrei eskubideak kendu. Uste dut ez dagoela inongo aitzakirik herrialde batek beste herrialde baten eskubideak ez errespetatzeko.

Egoera hobetzeko, nazioarteko erakundeek zibilak babestu behar dituzte. Adibidez, nazioarteko erakundeek nazioearteko zuzenbidea betearazteko eta zibilak babesteko neurri eraginkorragoak sustatu eta laguntza humanitarioa Gazara eta behar duten beste eremuetara eskainita. Gainera, potentziek beste herrialdeen eskubideak errespetatu behar dituzte, interes ekonomikoen gainetik.

Laburbilduz, nire ustez, Palestinako gatazka ezagutzea eta ulertzea ezinbestekoa da. Bakea lortzeko ezinbestekoa da interes politiko eta ekonomikoaren gainetik eskubideak jartzea eta herrialdeen artean errespetatu egin behar gara. Azkenean, guztiok pertsonak gara eta inork ez ditu besteek baino eskubide gehiago.

IRITZI ARTIKULUA

Bakea lortzeko bide zaila



HODEI HERRERO
ORIARTEKO 1. BATXILERGOKO IKASLEA

Gaur egungo Israelen inbasioa Palestinan ez da gatazka berria, nahiz eta jende askok pentsatzen duen 2023an hasi zela. Baina 1948tik datorren proiektu kolonial baten jarraipena da. Ildo horretatik, 2023an Israel genozidio bat prestatzen hasi zen, Gazatik sartu eta ateratzeko eskubidea kendu zieten palestinarrei, hortik ez ateratzeko eta hornigaiak, baliabideak (janaria, ura, medikamentuak, eta abar.) ez sartzeko, geroz eta egoera larriago bat bermatuz.

1885eko Berlingo Konferentzian Europako herrialdeek Afrika banatu zuten, kolonizazio prozesuan, eta Lehen Mundu Gerraren ostean, Otomandar Inperioa desagertzean, Palestina Erresuma Batuaren kolonia bihurtu zuten. 1948an (Bigarren Mundu Gerraren ondoren) kolonizatutako herriak deskolonizatzen hasi ziren, baina Europan naziek judutarrei egin zietenaren ondorioz, lurralde bat eman zieten judutarrei. Palestina oraindik ez zenez deskolonizatu, Nazio Batuen Erakundeak judutarrei Palestinako lurralde batzuk eman zizkieten. 1947tik aurrera, judutarrek Nakba deitutako garbiketa etnikoa hasi zuten, palestinarren desplazamendua sustatuz eta judutar pila bat Palestinara inmigratzea bultzatuz. Emaitza gisa, Israelgo estatua sortu zuten.

> **"Israel egiten ari den genozidioa asko normalizatu da; hildakoen kopurua izugarrizkoa da"**

Israel gaur egun, duela 78 urte baino askoz handiagoa da, aldiz, Palestina guztiz suntsituta dago, bereziki, Gazako zerrenda, eta pobrezia maila izugarri handia da. Israelek Amerikako Estatu Batuak (AEB) eta Erresuma Batuaren (EB) babes militar, politiko eta ekonomikoa jasotzen du. Eta Palestinak, aldiz, ez du inolako babesik. Israelen helburua Palestina guztiz desagertzea da, bonbardaketen bidez eta zibil masak akabatuz; beldurrez Gazatik atera nahi ditu.

Gatazka horren ondorioz, gizartea hasi da bake armatua lortzeko proposamenak egiten: adibidez, gobernuek armen enbargoa eta Israelekin harreman komertzialak etetea eskatzen dute. Gainera, zibilek manifestazioak edo boikotak egin dituzte, gobernuak presionatzeko.

Azkenik, nire aburuz, genozidio hau asko normalizatu da, egunean edozein adineko pertsonak hiltzen ari dira eta hildakoen zifra izugarrizkoa da, baina gutxitan jartzen dituzte halako notiziak aldizkarietako portadetan. Israelen gobernuak jarraitzen du genozidioarekin eta ematen du ezin dela ezer egin Israel gelditzeko, nahiz eta posible den euren kontrako neurriak hartzea.

ZAZPI ASTETAN MUNDUKO GATAZKEI BURUZKO HAMASEI ARTIKULU ARGITARATUKO DITUGU. GURE ATARI DIGITALEAN ATAL BEREZIA SORTU DUGU, PIEZA GUZTIAK BILTZEKO. QR KODE HAU ESKANEATU!

TOPAKETA

Aniztasunaren eta inklusioaren elkargune bihurtuko dute Okendo enparantza

lazko "harrera beroak" hauspotuta prestatu dute II. Jardunaldi Inklusiboa

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udaleko Kirol eta Gizarte Zerbitzuek II. Jardunaldi Inklusiboa antolatu dute biharko, hilak 14. *Aniztasunaren aztarnak* lelopean egingo dute Okendo plazan eta inguruetan, 09:30etik 14:00etara. Gizarte inklusioa sustatuko du jardunaldiak. Era berean, helburu izango ditu dibertsitatea ikusaraztea eta adin, gaitasun eta jatorri desberdinetako pertsonen arteko aukeren berdintasuna, parte hartzea eta bizikidetza bultzatzea. Herritar guztiei irekitako ekimena da, eta kirol jarduera, gizarte eta aisialdirako proposamenak eskainiko ditu.

Ekimen horrek Lasarte-Oriako Inklusio Mahaiak egindako lanean du jatorria. Udaleko eta gizarte, osasun, hezkuntza nahiz lan arloko hainbat zerbitzuk eta erakundek osatzen dute elkargune hori. Esate baterako, hauek guztiek: udal ordezkariak, Lanbide, Osakidetza, Ondarretako Osasun Mentaleko Zentroa, Helduen Hezkuntzarako Zentroa (EPA-HHI) eta EAGI Eraikuntza Eskola. Euren xedeak dira baliabideak koordinatzea, esperientziak partekatzea zein laneratzea eta bai aukera berdintasuna bai pertsona guztiek udalerriko bizitzan parte hartzea sustatzeko ekimenak bultzatzea.



Eragile eta erakunde ugariren artean prestatu dute egitaraua. TXINTXARRI

Roberto Ramajo Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zuzendariak ekimenaren garrantzia azpimarratu du, jardunaldiak kirolaren irisgarritasunetik gizarte inklusiora hausnartzeko aukera emango baitu. Horren ondotik, herritar eta gipuzkoar guztiak bertaratzera animatu ditu.

Iazko edizioa, oinarri

Joan den urtean ospatu zuten lehen aldiz jardunaldia. Harrera beroa izan zuen ekitaldiak. Lehen edizioari jarraituta, udaleko Kirol zinegotzi Goizalde Pildainek jakinarazi du kirolak inklusioa sustatzeko indarraz baliatu direla, beste behin: "Iaz lehen urratsak egin genituen, eta aurten bide horretan aurrera egiten jarraitu nahi dugu". Hori dela-eta, irisgarritasun unibertsaleko martxa inklusiboaz gain, proposamen gehiago ekarriko ditu biharko ekitaldiak.

Elkarte eta erakunde ugariren inplikazioa izango da bigarren edizio honen ezaugarrietako bat. Honako hauek izango dira erakunde horiek: Ortzadar, Begi-Sare, Aspanogi, Acabe, Domus, Andade, Izan Inurri, DYA, Hegalak, Lekanea, Fortuna, Basket Kalea, Ostadar, EDE Fundazioa, Lasarte-Oriako Lanbideren bulegoa eta anbulatorioa, Ondarretako Osasun Mentalerako Zentroa, Lasarte-Oriako EPA eta EAGI Eraikuntza Eskola, eta abar. Hirugarren sektore sozialeko elkarte eta erakunde horiek euren lana ezagutarazteko aukera izango dute herritarrek. Gainera, Okendo plazako arkupeetan jarriko dira.

Gida berria

Ekimen horren baitan, Inklusio Gida berria egin dute, Inklusio Mahaiaren elkarlanari esker. Txosten horrek, udalerrira iristi berri diren pertsonei informazioa eta orientazioa eskaintzeaz gain, xede du herriko bizitzan parte hartzea errazteko baliabide publikoak gerturatzea. Horrenbestez, Lasarte-Oriako zerbitzuei eta baliabideei buruzko informazio praktikoa jasotzen du, hala nola gizarte zerbitzuen, enpleguaren, prestakuntzaren, berdintasunaren eta osasun arretaren zein buru osasunaren bueltakoa.

Gidaren mila ale argitaratuko dituzte, eta gainera, herritarrentzako arreta guneetan eskuragarri jarriko dituzte: Lasarte-Oriako anbulategian; Helduen Hezkuntzako Zentroan eta Osasun Mentaleko Zentroan, hain zuzen.

Inklsuio Gida berriaren lanketa hauspotu du udaleko Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Lourdes Acevedok: "Inklusioa neurri zehatzen bidez eraikitzen da. Gida hau pertsona guztiek, berezi gure udalerrira iristen direnek eskura dituzten zerbitzuak eta baliabideak ezagutzeko sortu da, baita laguntza behar dutenean nora jo jakiteko ere". Horrekin batera, elkarteen eta erakundeen inplikazioa balioetsi du.

Biharko II. Jardunaldi Inklusiboan aurrera eramango duten egitaraua *https://txintxarri.eus/lasarte-oria/1794217124461-inklusioaren-eta-aniztasunaren-elkargune-bihurtuko-da-okendo-plaza* estekan kontsulta dezakezue, TXINTXARRI-ren webgunean.

ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

FUTBOLA

LARUNBATA 14

GORENGO MAILA
- **Ostadar SKT - Mundarro**
  17:30. Michelin kirol gunean.

ERREGIONALEN I. MAILA
- **Ostadar SKT - Mundarro**
  15:30. Michelin kirol gunean.

JUBENILEN GORENGO MAILA
- **Vasconia CD - Ostadar SKT**
  17:30. Puio, Donostian.

JUBENILEN 1. MAILA
- **Ostadar SKT - Zarautz KE**
  12:00. Atsobakar kirol gunean.

KADETEEN OHOREZKO MAILA
- **Ostadar SKT - Añorga KKE**
  14:00. Atsobakar kirol gunean.

KADETEEN 1. MAILA
- **Hernani CD - Ostadar SKT**
  09:00. Zubipe, Hernanin.

IGANDEA 15

JUBENILEN 1. MAILA
- **Zumaiako FT - Texas**
  15:30. Aita Mari, Zumaian.

ARETO FUTBOLA

OSTIRALA 13

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA
- **Eguzki Arkupe - Altza**
  20:50. Maialen Chorraut kiroldegian.

LARUNBATA 14

ERREGIONALEN 1. MAILA
- **Eibartarrak - Eguzki ISU**
  17:30. U. Laboral, Eibarren.

NAZIONAL LIGA, OHOREZKO J.
- **Mieresala - Eguzki CORPAChef**
  16:00. Mieres, Asturiasen.

KADETEEN MAILA
- **Lauburu - Eguzki Urarte**
  11:30. Belabieta, Ibarran.

IGANDEA 15

KADETEEN MAILA
- **Eguzki Escalerilla - Lauburu**
  11:00. M. Chourraut kiroldegian.

SASKIBALOIA

LARUNBATA 14

SENIOR 3. MAILA
- **Ostadar SKT - Hernani KE**
  14:00. M. Chourraut kiroldegian.

KADETE PARTAIDETZA
- **Ostadar Urdina - Goierri**
  09:30. M. Chourraut kiroldegian.
- **Ostadar Beltza - Ordizia**
  11:30. M. Chourraut kiroldegian.

IGANDEA 15

JUNIOR PARTAIDETZA
- **Aloña Mendi KE - Ostadar Alvite**
  10:45. Zubikoa kiroldegia, Oñatin.

SENIOR 2. MAILA
- **Arri BKL - Ostadar SKT**
  16:00. Antzizar kiroldegia, Beasainen.

PILOTA

OSTIRALA 13

ESKUZ, BINAKA
- **Intxurre - Intza KE**
  18:00. 2. partida. Elorri, Alegian.

LARUNBATA 14

ESKUZ, BANAKA, K. 1. MAILA
- **Intza KE (Jauregi) - LAPKE**
  10:00. 1. partida. Michelinen.
- **Intza KE (Atorrasagasti) - LAPKE**
  10:00. 2. partida. Michelinen.

ESKUZ, BINAKA, K. 3. MAILA
- **Intza KE - Gazteleku 2**
  10:00. 3. partida. Michelinen.

ESKUZ, BANAKA, K. 2. MAILA
- **Hernani - Intza KE (Maiz)**
  09:00. 1. partida. Hernaniko kirold.

ESKUZ, BANAKA, I. 3. MAILA
- **Intza KE (Ibarzabal) - Aizkorpe**
  18:30. 1. partida. Michelinen.

ESKUZ, BANAKA, I. 1. MAILA
- **Intza KE (Jauregi) - Intxurre**
  18:30. 2. partida. Michelinen.

TRINKETA, ESKUZ BANAKA
- **Intza KE - Abantzu**
  15:30. 3. partida. Gure Ametsa, Iruran.

ERRUGBIA

LARUNBATA 14

SENIORREN 1. MAILA
- **Uribealdea - Zarautz Beltzak**
  16:00. Atxurizubi, Mungian.

16 URTEZ AZPIKOA, EUSKAL LIGA
- **RC Rioja - Zarautz Beltzak Eibar**
  12:00. Pradoviejo, Logroñon.

AUTOMOBILISMOA

LARUNBATA 14

- **Aitor Manso pilotu lasarteoriatarrak XIX. El Vellon igoera jokatuko du, Madrilen.**
  Madrilen, 10:30etik aurrera.

TXIRRINDULARITZA

LARUNBATA 14

- **Luken Garmendia (Danena KE), Dario Gomez (Andoaingo Txirrindularitza Eskola) eta Xabat Martin (Danena KE) txirrindulariek Gipuzkoa Pista Saria txapelketako bigarren jardunaldia jokatuko dute.**
  Donostiako Antonio Elorza Belodromoa, 14:00etatik aurrera.

JARDUNALDIA

LARUNBATA 14

- **Eragile eta erakunde ugarik II. Jardunaldi Inklusiboa aurrera eramango dute.**
  Okendo plaza, 09:30etik 14:00.

FUTBOLA

Azken minutuetako erreakzioa ez da aski izan Goierri Gorri-ren aurka ez galtzeko

Mikel Etxarri Entrenatzaileen Eskolak ikasturteari ekin dio, 370 ikaslerekin

Txintxarri

Denboraldiko aurreneko puntuak eskuratu ezinik jarraitzen du Ostadar SKTk, Emakumezkoen Gorengo Mailan. Hilaren 7an Michelin kirol guneko zelaira etorri zen arerioa Goierri Gorri izan zen eta 2-5 irabazi zuen. Hori bai, atsedenaldirako partida bideratuta (0-3 ziren aurretik) izanagatik, espero baino gehiago izerditu behar izan zuten kanpokoek: urdin-beltzek erreakzionatu eta bi gol sartu zituzten 80. zein 83. minutuetan. Sara Iglesias eta Lide Ecay izan ziren goleatzaileak. Etxeko jokalariak nahiz zaleak animatu zituen su horrek, baina, tamalez, lazkaotarrek berehala itzali zuten bosgarren gola 85. minutuan sartuta.

Denboraldi hasiera gogorra izaten ari da Ostadarrentzat baina taldeak argi du ez duela amore emango. Zazpigarren jardunaldian atseden hartuko dute urdin-beltzek eta ahalik eta ongien prestatuko dute Segura Aizkorri ekipoaren aurka jokatuko duten norgehiagoka.

Gizonezkoen maila berean konpetitzen ari den Ostadarren dinamika guztiz kontrakoa da.



Ostadarreko jokalari bat, taldekideari baloia pasatzen. TXINTXARRI

Zortzi neurketa jokatu ditu eta bakar bat ere ez du galdu. Hori horrela, aurreneko multzoko liderra da, hogei punturekin. Azkeneko hiruak Danena-ren zelaian poltsikoratu zituen, 0-3 irabazita.

Asteburu honetan Michelinen jokatuko dute urdin-beltzek. Biharkoa (hilak 14) ez da nolanahiko neurketa izango, sailkapeneko bigarrena etorriko delako Lasarte-Oriara: Astigarragako Mundarro. Bi ekipoek hogeina puntu dituzte eta jardunaldia amaitzen denerako bakarkako lider izatea dute helburu. 17:30ean hasiko da norgehiagoka.

Ibilbideari aitortza

Mikel Etxarri prestatzaile lasarteoriatarraren izena jarri diote Gipuzkoako entrenatzaileen eskolari, urteotan guztiotan egindako lana aitortzeko. Deustuko Unibertsitatean ireki zuten ikasturtea eta proiektu horren sustatzaileek jakinarazi dute 370 ikasle dituztela gaur egun. Zentroaren logotipo berria ere aurkeztu zuten.



Jokalariak eta entrenatzaile taldea, sailkatu izana ospatzen. REALA

Europan lehiatzen jarraituko dute

UEFA Women's Europa Cup txapelketako final laurdenetara sailkatu da Reala, joaneko zein itzuliko partidetan Fenerbahce arerioa baino gehiago izanda. Gorka Alvarez lasarteoriatarrak entrenatutako taldeak 1-0 eta 0-2 irabazi zituen bi neurketa horiek, azkena, hilaren 11n. Zubietan astebete lehenago lortutako abantaila mantentzea eta hurrengo faserako txartela poltsikoratzea zen txuri-urdinen helburua eta oso kontzentratuta zelairatu ziren. Hori horrela, hasi eta berehala sartu zuten lehen gola, Ceci Marcosen erdiraketa bat bere atean sartu zuenean Collete Ndzana atzelariak.

Txapelketatik kanpo geratzear zirela jakitun, turkiarrek erreakzionatu eta lanean jarri zuten Julia Arrula atezaina, baina geldiketa bikaina egin zuen. Minutu batzuk geroago, Sonya Keefe aurrelari txuri-urdinak 0-2koa sareratu zuen eta bi goleko urrezko abantaila horri primeran eutsi zioten donostiarrek.

"Fenerbahceren zelaian horrelako urratsa egin izana sekulakoa da taldearentzat eta klubarentzat", nabarmendu zuen Alvarezek partida amaitu eta gero. Balentria izugarria izanagatik, prestatzaileak ligako hurrengo neurketa du jomugan. Ez da nolanahikoa, izan ere, Athletic etorriko da Anoetara. Bi euskal taldeen arteko derbia igandean (hilak 15) jokatuko dute, 12:00etatik aurrera.

TXIRRINDULARITZA

Pistako sasoiari ekin diote Garmendiak, Gomezek eta Martinek

Kadete zein Junior kategorietan konpetitzen ari diren herritarrek Gipuzkoa Pista Sariko lehen proba jokatu dute

Txintxarri

Donostiako Antonio Elorza Belodromoan ziztu bizian aritu ziren Kadete nahiz Junior mailetako dozenaka txirrindulari, Gipuzkoa Pista Saria txapelketako aurreneko jardunaldian. Proba puntuagarri guztietan pilatutako aleak batuta, Jakes Zubizarreta (Lagun Onak), Eñaut Saizar (Oriako), Candela Iglesias (EC Viella) eta Laia Sagarduy (RPK UDAP) izan ziren irabazleak.

Kadeteetan herritar bat ari da aurtengo denboraldian, Andoaingo Txirrindularitza Taldean: Dario Gomez. Bigarren urtea du kategoria horretan eta aurreneko jardunaldian 28 puntu pilatu zituen, sailkapen orokorrean hamazazpigarren postua eskuratuta. Maila horretako puntuazio proba jokatzen ari zirenean erori egin ziren zenbait txirrindulari eta anbulantziako kideek artatu behar izan zituzten. Ezbehar horrengatik hamabost minutuz geratu behar izan zuten lehiaketa. Gainerakoan, gorabeherarik ez zuten izan egun osoan zehar.



Juniorrek jokatutako probetako baten irudia. MARTIN EARLY

Koska bat gorago konpetituko dute Luken Garmendia bigarren urteko jubenilak eta kategoriaz igo berri den Xabat Martinek. Biak ala biak Danena KE taldearen koloreekin ari dira lehiatzen eta Gipuzkoa Pista Sariko aurreneko jardunaldian lan ederra egin zuten. Kanporaketa probako tropel banatan jardun ziren: Garmendia, A multzoan, hirugarren postuan sailkatuta; Martinek, bestalde, aurreneko garaipena erdietsi zuen B taldean. Eliminazioarena ez ezik, beste erronka batzuk jokatu zituzten Martinek eta Garmendiak: 34 eta 22 puntu poltsikoratuta, jubenilen sailkapeneko bosgarren eta hamabigarren postuetan amaitu zuten aurreneko jardunaldia, hurrenez hurren.

Hilaren 7an jokatutako aurreneko jardunaldian 93 txirrindularik parte hartu zuten, emakumezkoen zein gizonezkoen Kadete eta Junior kategorietan. Bigarrena bihar (hilak 14 aurrera eramango dute, Donostiako Antonio Elorza Belodromoan baita ere, 14:00etatik aurrera. Martinek, Garmendiak eta Gomezek debutean egindako lan onarekin jarraitu eta ahal dela lortutako emaitzak hobetzea dute helburu.

SASKIBALOIA

Arerio zuzen baten kontrako garaipen garrantzitsua erdietsi du Ostadarrek

Bera Bera talde donostiarra 60-43 garaitu dute urdin-beltzek, etxean

Txintxarri

Garaipen guztiak dira garrantzitsuak, jakina, baina arerio zuzenak direnen kontra poltsikoratutakoek are zapore hobea dute. Seniorren 2. Mailan ari den Ostadar SKTk horixe bera egin zuen hilaren 7an, Maialen Chourraut kiroldegian Bera Bera talde donostiarraren aurka jokatutako partidan: 60-43 gailendu zen eta, horri esker, ekipo hori sailkapenean aurreratu eta bigarren postuan dago orain, bederatzi punturekin.

Bost norgehiagokatatik lau zakuratu dituzte urdin-beltzek orain arte eta gertu dute Arri BKL liderra, puntu bakarrera. Bada, beasaindarren aurkakoa izango da Ostadarreko jokalarien hurrengo erronka. Antzizar kiroldegian neurtuko dituzte indarrak, igande honetan (hilak 15), 16:00etatik aurrera. Pasa den jardunaldian egin bezala, herritarrek beste arerio zuzen bat menderatzea dute helburu.

Bestalde, Senior Gizonezkoen 3. Mailako taldeak sendo jarraitzen du eta denboraldiko laugarren garaipena poltsikoratu zuen Astigarragan, Mundarrori 47-60 irabazita. Orain arteko bolada ezin hobeari eutsi ahal izateko, Hernani garaitu beharko dute Maialen Chourraut kiroldegian bihar, 14:00etatik aurrera.



Ostadarreko jokalari bat saskira jaurtitzen, aurkariz inguratuta. TXINTXARRI

ATLETISMOA

Berrehun herritar baino gehiago helmugaratu dira



ISAAC FARRE RICO

Atletismo popularraren hitzordu garrantzitsuenetariko bat da Behobia-Donostia lasterketa. 61. edizioa jokatu zuten hilaren 8an eta ia 27.000 kirolari helmugaratu ziren, tartean, berrehun lasarteoriatar baino gehiago. Ia denek korrika osatu zituzten 20 kilometroak, baina patinatzaileren bat ere animatu zen.

Urri amaierako 29. Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoian bezalaxe, lasarteoriatar bizkorrenak Jon Presa (01.11.51) eta Nora Landaberea (01.28.28) izan ziren. Javi Guerra (01.01.13) eta Katherine Tisalema (01.08.58) izan ziren irabazleak.

Korrikalariek ez ezik, patinatzaileek ere jokatzen dute Behobia-Donostia. Julen Urkizar (33:50) eta Garazi Ganuza (40:24) nagusitu ziren modalitate horretan. Helmugara iritsi ziren guztietako bat izan zen lasarteoriatarra, Javier Vargas hain zuzen ere. 58.54ko denbora egin zuen.

ESKUTITZA

Olana konpontzeko eskaera

OSTADAR SKT
ERAGILEA

Iazko azarotik, udal kiroldegiko pista nagusia bereizten duten bi olanetako baten motorra matxuratuta dago, olana sabaian erabilezin utzita eta kirol espazioa hiru zelai independentetan banatzea eragotzita. Ia hamar hilabete igaro dira udal honek konpondu edo ordezkatu gabe.

Olana jaistea ezinezkoa denez, hiru kirol ataletatik bik espazio irekia partekatu behar dute, inolako banaketa fisikorik gabe. Egoera horrek segurtasun arazo bat sortzen du egunero: baloiak eremu batetik bestera etengabe igarotzeak estropezu egiteko, erortzeko eta inpaktuak izateko arrisku nabarmena dakar, eta horrek lesioak eragin ditzake kirolariengan (gehienak haurrak, gazteak eta tokiko erabiltzaileak). Gainera, etengabe eteten du entrenamenduen eta kirol saioen erritmoa.

Asteroko entrenamenduetan dagoen arriskuari asteburuetan sortzen den antolakuntza kalte jasanezina gehitu behar zaio. Araudiak ezarritako espazio banaketa ez danez betetzen, ezin dira aldi berean hiru partida ofizial jokatu. Herriko kirol atalen artean ordutegiak eta espazioak kudeatzea berez konplexua bada, matxura luze horrek topaketen programazioa ia bideraezina bihurtu du.

"Kiroldegi zaharra ezin da hiltzen utzi berria martxan ez dagoen bitartean"

Bere garaian, pista zatitzea bermatuko zuen eta deskribatutako arriskuak minimizatuko zituen sare banatzaile bat instalatzeko irtenbide alternatiboa eta bitartekoa proposatu zitzaien udal arduradunei. Proposamena modu positiboan jaso bazen ere, gaur egun neurri hori ez da gauzatu, eta konpromiso eta bizkortasun falta kezkagarria erakutsi du. Kezka handiz ikusten dugu kiroldegi berriaren eraikuntza aitzakia dela gaur egungoaren mantenua bertan behera uzteko. Iraungitze data duen instalazio batean inbertsio handirik edo egiturazko berrikuntzarik ez egitea uler dezakegu, baina egungo instalazioak baldintza duin, funtzional eta seguruetan MANTENTZEA udalaren oinarrizko eta ezinbesteko betebeharra da. Kiroldegi zaharra ezin da hiltzen utzi berria martxan ez dagoen bitartean. Honengatik, Ostadar SKTk udalari eskatzen dio:

1. Udal kiroldegiko pistan sare bereizlea edo olanaren motorra lehenbailehen konpontzea, espazioaren banaketa funtzionala berreskuratzeko.

2. Udaleko Kirol Sailaren konpromiso irmoa mantentze lanen gainean, entrenamenduen segurtasuna eta lehiaketa ofizialen garapen normala bermatze aldera.

AUTOMOBILISMOA

El Vellon igoeraren XIX. edizioa jokatuko du Aitor Mansok, Madrilen

Denboraldiko azken lasterketari aurre egingo dio Aitor Manso pilotu lasarteoriatarrak bihar, hilak 14, Madrilen. XIX. El Vellon igoera jokatuko du 10:30etik aurrera, Talex M4 automobila gidatuta. Arrakastatsua izan den sasoiari ginda jarri nahi dio gidari trebeak.



GORKARSPORT

má 77€
erreflexuen aurkako
betaurreko graduatua

má 179€
erreflexuen aurkako
betaurreko progresiboa

má 59€
2 eguzkitako betaurreko
polarizatuak

EGUNEROKO UKIPEN LENTEAK
Hidrogel silikonazko (30 unt.)
16€

BLACK FRIDAY

multiópticas

943 37 74 55
Kale Nagusia, 15.
LASARTE-ORIA

hitzordua eskatu

www.multiopticas.com

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak. R.P.S. 93/25

ESKELA

ESKELA

Ander Arteaga Izquierdo



2026ko azaroaren 9an hil zen.

Zauden lekuan zaudela, beti arte Ander. Mila esker!
Zuk emandakoa elkarte eta herri honetan geldítzen da.

Gure besarkadarik goxoena familiari eta lagunei

TTAKUN KULTUR ELKARTEA
Lasarte-Orian, 2026ko azaroaren 13an.

ZORION AGURRAK

Urte askotarako!
Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- txintxarri.eus-en erabiltzailea sortu eta *txintxarri.eus/zorionagurrak* helbidean sartu.
- Mezua bidali *txintxarri@ttakun.eus* helbidera, eta idatzi izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
- Zatoz Ttakunera edo bidali WhatsApp-ez 688 68 35 10 telefonora.


Osteguneko 16:00ak arte jasoko ditugu



HIRIBUSA

Hiribusa





Eskola egunak

Antxisu	Olatxoaldea	Institutua	Antxisu
7:40	7:47	7:50	8:06

Lanegunak

Antxisu	Olatxoaldea	Zabaleta	Atsobakar	Antxisu
8:20	8:33	8:37	8:43	8:55
9:00	9:13	9:17	9:23	9:35
10:20	10:33	10:37	10:43	10:55
11:00	11:13	11:17	11:23	11:35
11:40	11:53	11:57	12:03	12:15
12:20	12:33	12:37	12:43	12:55
13:00	13:13	13:17	13:23	13:35
13:40	13:53	13:57	14:03	14:15
14:20	14:33	14:37	14:43	14:55
15:00	15:13	15:17	15:23	15:35
15:40	15:53	15:57	16:03	16:15
16:20	16:33	16:37	16:43	16:55
17:00	17:13	17:17	17:23	17:35
18:20	18:33	18:37	18:43	18:55
19:00	19:13	19:17	19:23	19:35
19:40	19:53	19:57	20:03	20:15
20:20	20:33	20:37	20:43	20:55

Larunbatak

GUARDIAKO FARMAZIAK

LASARTE-ORIA EGUNEZ
OSTIRALA, 13 DE MIGUEL
LARUNBATA, 14 ACHA-ORBEA
IGANDEA, 15 ACHA-ORBEA
ASTELEHENA, 16 DE MIGUEL
ASTEARTEA, 17 LASA
ASTEAZKENA, 18 GIL
OSTEGUNA, 19 ACHA-ORBEA

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
KNIESE: Kale Nagusia 71/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA EGUNERO
22:00etatik 09:00etara
CASTILLA-LARBURU farmazia
Urbieta kalea 7, HERNANI / 943-55 29 41

URTE OSOKO GUARDIAK
Informazio gehiago *www.cofgipuzkoa.com* webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK
· ERREGISTROA: 943-37 16 29
· EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
· KIROLDEGIA: 943-37 61 82
· MANUEL LEKUONA
· KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
· GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
· KIUB: 943-36 16 05
· UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
· MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK
· OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
· DYA: 943-46 46 22
· GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
· UDALTZAINAK: 943-36 24 42
· ERTZAINTZA: 943-53 88 40
· SOS DEIAK: 112

txintxarri WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre Etxeberria, Iñigo Gonzalez Sarobe, Maddi Noriega Zaldua eta Lierni Apaolaza Urdanpileta.

Publizitatea
Irati Zatarain Peña.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Lierni Rekondo, Jexux Artetxe, Aizpea Amas, Maitane Rebe eta Pili Ormazabal.

Banatzaileak
Nora Navarro, Aimar Hernandez, Gari Iraola, Axier Iraola, Eneko Sanchez, Udane Guisado eta Manex Azkonobieta.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

Publizitatea
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia
Geltoki kalea, 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

TXINTXARRI-k ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA
LASARTE-ORIA
UDALA

GIPUZKOA
Foru Aldundia
Babestutako hedabidea

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943-37 14 48 | 688 86 83 10 | *txintxarri@ttakun.eus*

OSTIRALA 13

LASARTE-ORIA

- **Bakarrizketa** Mikel Bermejo umorista lasarteoriatarrak *Señales* ikuskizun berriaren bi emanaldi egingo ditu. Baterako zein besterako sarrerak agortuta daude. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:00etan eta 21:30ean.

LARUNBATA 14

LASARTE-ORIA

- **Literatura** 0 eta 3 urte arteko haurrei eta euren familiei zuzendutako Liburu Baby Kluba egitasmoaren saioa egingo dute euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Txikitatik irakurzaletasuna sustatzea da ekimenaren helburu nagusia. Sarrera librea da aforoa bete arte. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 11:00etan.
- **Dantza** Erketz EDT taldekoak truke egitasmo bat aurrera eramaten ari dira eta horren barruan emanaldi bateratua egingo dute Donostiako Trebeska eta Alacant-eko El Centenar Grup de Danses taldeekin. Euskal folklorea eta Valentziako tradizioak uztartuko dituzte. Sarrera, doan. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:00etatik aurrera.

IGANDEA 15

LASARTE-ORIA

- **Zinema** Haurrei zuzendutako saioan *Superthings* filma emango dute. Sarrerek 4,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 17:00etatik aurrera.

ASTEARTEA 17

LASARTE-ORIA

- **Musika** Santa Zezilia zaindariaren egunaren harira (22an izango da, igandez), emanaldi berezia egingo dute Udal Musika Eskolako ikasleek. Sarrera doakoa da, baina, auditorioko tokia mugatua denez, bertaratu nahi dutenek aurrez eskuratu beharko dituzte gonbidapenak aretoko leihatilan. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 18:30ean.

ASTEAZKENA 18

LASARTE-ORIA

- **Balleta** Jean Dauverbal konpositoreak 1789an sortutako *La Fille mal Gardée* bertsionatu zuen Sir Frederick Ashton-ek, The Royal Ballet konpainiarentzat. Talde horren emanaldi digitaletako bat proiektatuko dute. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:00etan.
- **Hitzaldi-tertulia** *Bazterkeriatik gizarte inklusiora. Egungo gakoak eta erronkak* solasaldia aurrera eramango du Borobilean Elkarteak. Deusto Unibertsitateko irakasle Felix Arrieta, Bizi-Lagunak elkarteko lehendakari Malak Lazaar eta Jose Barreiro gizarte langilea gonbidatuko dituzte gaiaz jardutera. Zarautz Oinarrian proiektuko koordinatzaile Oihan Agirretxek aurkeztuko du saioa. Oriarte Landaberri institutua, 19:00etan.

OSTEGUNA 19

LASARTE-ORIA

- **Topaketa** Bizi-Lagunak eragile sortu berriko kideek iragarri dute *Su artean* izeneko jarduera egingo dutela Semblante Andaluz elkartearen egoitzan. "Lasarte-Oria oso anitza da: Euskal Herrian zein atzerrian jaiotako herritarrak bizi gara. Elkarrekin kozinatzeko eta afaltzeko gonbitea duzue hau, elkar ezagutu eta elkarrengandik ikasteko", jakinarazi dute. Doako ekimena da eta bertaratu nahi dutenek aurrez izena eman beharko dute. Helduak ez ezik, haurrak ere beso-zabalik jasoko dituzte eta beraientzako ludoteka egingo dute. Hau da prestatu duten egitaraua:
  17:30ean, partaideei harrera eta sukaldaritza tailerra.
  18:15ean, ongietorri ekitaldia egingo diete afaltiarrei.
  18:30ean, haurren afaria.
  19:00etan, helduen afaria eta haurrentzako ludotekaren irekiera.
  20:15ean, agurra.
- **Musika** Lasarte-Oriako Udalak Azaroaren 25aren bueltan antolatu duen egitarauaren barruan, kontzertua emango du Biyak Bat koruak. Sarrera, doan. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:00etan.



BIZI-LAGUNAK ELKARTEA

LASARTE-ORIA Topaketa
Su artean izeneko ekimena antolatu dute Bizi-Lagunak eragile sortu berriko partaideek, Lasarte-Orian bizi diren pertsonek elkar hobeto ezagutu dezaten. Haurrentzako nahiz helduentzako jarduerak aurrera eramango dituzte, hala nola ludoteka edota sukaldaritza tailerra.



TXINTXARRI

LASARTE-ORIA Dantza
Truke egitasmo bat martxan jarri du Erketz EDT dantza talde lasarteoriatarrak eta Trebeska zein El Centenar Grup de Danses eragileekin emanaldi bateratu ikusgarria egingo du. Sarrera doakoa dela iragarri dute antolatzaileek. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:00etatik aurrera.

OSTIRALA 20

LASARTE-ORIA

- **Antzerkia** Lasarte-Oriako Udalak Azaroaren 25aren bueltan antolatu duen egitarauaren barruan, *Taberna Paraíso, un año después* antzezlanaren emanaldia egingo dute Makelur antzerki taldeko kideek. Sarrera, doan. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:00etan.

IGANDEA 22

LASARTE-ORIA

- **Ospakizuna** Ibilgailu klasikoen jabeek topaketa aurrera eramango dute goizetik hasi eta iluntzera arte. Andatza plaza izango da gune nagusia baina herrian barrena ere ibiliko dira. Hau da ClasicoX elkarteak udalaren laguntzarekin prestatu duen egitaraua:
  09:00etatik 11:00etara, gidariei harrera, txartelen banaketa eta gosaria (Aitonak kafetegian; tiketa erakustea beharrezkoa da).
  09:30etik 12:30era, ibilgailu klasikoen erakusketa, Andatza plazan.
  10:00etatik 14:30era, haurrentzako zein helduentzako Scalextric txapelketa. DJ Pitxi-k girotuko du jarduera hori.
  12:30ean, topaketan parte hartuko dutenek ibilaldia egingo dute herrian barrena, antzinako zirkuitua zegoen tokira iritsi arte.
  13:30ean, sariak banatuko dituzte eta bermuta hartuko dute. Andatza taberna.
  15:00etan, Udaberri elkartean bazkalduko dute parte hartzaileek.
- **Musika** Santa Zezilia zaindariaren eguna ospatuko dute Alboka Abesbatzako kideek. San Pedro parrokia, 12:30etik aurrera. Meza amaitu ondoren elkarrekin bazkaltzera joango dira eragile horretako partaideak eta bazkideak.
- **Zinema** Haurrei zuzendutako saioan Dino Familia filma emango dute. Sarrerek 4,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 17:00etan.

ASTEAZKENA 25

LASARTE-ORIA

- **Mobilizazioa** Lasarte-Oriako Udalak Azaroaren 25aren bueltan antolatu duen egitarauaren barruan, elkarretaratzea aurrera eramango du. Okendo plaza, 12:00etan.

OSTEGUNA 26

LASARTE-ORIA

- **Hitzaldia** Lasarte-Oriako Udalak Azaroaren 25aren bueltan antolatutako egitarauaren barruan, *Indarkeria digitalak, nanosfera eta beharrezko tresnak gazteen artean sortzen ari diren indarkeria mota berri horiei aurre egiteko* hitzaldia emango du Sortzeneko kide Sheila Melcon Lopezek. Antonio Mercero aretoa, 18:00etan.

OSTIRALA 27

LASARTE-ORIA

- **Zinema** Lasarte-Oriako Udalak Azaroaren 25aren bueltan antolatu duen egitarauaren barruan, *Sacamantecas* filma emango dute Okendo Zinema Taldeko kideek. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 20:00etan.

BAZKIDETZA

TTAKUN BAZKIDETZA 60 € URTEAN

BAZKIDETZA GAZTEAK 18-30 30 € URTEAN

35 urte
1991-2026

Azaroaren 16an elkarteak 35 urte betetzen ditu!



Ttakun Kultur Ekartea

TTAKUN KULTUR ELKARTEA

Informazioa eta bazkidetzak: *ttakun@ttakun.eus* · Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria · 943-37 14 48

gremioen gida 2026

Eskura eta herrian. Zerbitzurik onenak, zuretzat!

Elektrizitatea

ELECTRICIDAD ARREGUI

• Material elektrikoa
• Argiak
• Etxetresna elektrikoak
• TB/HI-FI
• Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21
600 85 75 86 www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com

Igeltseritza

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra

• BARRUKO BERRIKUNTZAK
• TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
• BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
• GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 05 93 92 - 943-56 66 40
uraitz@uraitz.com - www.uraitz.com
Hipodromo etorbidea, 10 LASARTE-ORIA

Kristaldegia

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

• Komertzial instalazioak
• Beira bikoitza
• Segurtasun beirak
• Dutxa-itxiturak eta irristailuak
• Ispiluak
• Barandak
• Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
.943 37 17 33 • 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com

34. URTEURRENA

ISU

PVC eta
ALUMINIOZKO LEIHOAK

943-36 64 95
ventanas_isu@hotmail.com

Kale Nagusia, 46 behea.
LASARTE-ORIA

Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala
USURBIL

Barne diseinua

SUGATE

SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

• GREMIOEN KOORDINAZIOA
• ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
• AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
• HORMA-ARMAIRUAK
• MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5
Lasarte-Oria
Tel: 943-361 471
www.sugatecocinas.com